ZORIONAK ALTSASUKO *ARALARKO MIKEL DONEA* BHI-KO IKASLE ETA IRAKASLEEI

Altsasuko *Aralarko Mikel Donea* BHIk "**Irakurmena, idazmena eta ahozko adierazpena lantzeko jardunbide egokien**" saria jaso du "Ikasleen ahozko hizkuntza lantzeko egitasmoa" lanarekin. EIBZtik eta Euskara Ataletik zorionak eman nahi dizkiegu egitasmoan parte hartu duten guztiei, ikasle zein irakasleei.

Duela urte batzuk, EIBZ eta Euskara Atala formazioa eskaintzen hasi ziren, lankidetzan, ikasleen ahozko gaitasuna hobetzeko asmoz. *Aralarko Mikel Donea* BHI ikastetxeko irakasleek, horren beharra ikusita, egitasmoa abian jarri zuten, eta teoriatik praktikara eraman zuten, ikasgelan bertan ere ikasleak ahozkoan trebatzeko. Urtez urte, ikasmaila gehiagotara zabaldu da, eta egin den balorazioa oso ona izan da, ikasle zein irakasleen aldetik. Gure aldetik, aitortu behar dugu bidea elkarrekin egin dugula aholkulariok eta ikastetxeko irakasleok, elkarrengandik eta praktikatik ikasiz.

Ezkerretik eskuinera: Iñigo Huarte, Javier Casteig, Juantxu Etxebarria